



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2015eko URTARRILAREN 27an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2015eko urtarrilaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Onintza Gorostidi Murua  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Leire Otegi Elola  
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
  - **2014ko abenduaren 16an egindako ohiko bilkuraren akta.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera aztertu eta 2015 urterako dagokion hitzarmena onestu, hala bada.**
5. **Alkizako Herri Eskolak eginiko eskaera aztertu, hala bada.**
6. **Beste batzuk.**
7. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2014ko abenduaren 16ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

56/2014 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 23koa, X.A.Z. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, ebazten duena.

57/2014 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 23koa, 2015eko ekaineko aparteko ordainsariari dagozkion nominaren aurrerakinak eskuratzeko eta ahalbidetzeko prozedura onartzea, ebazten duena.

58/2014 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 29koa, faktura txikien zerrenda onestu eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

59/2014 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 29koa, faktura txikien zerrenda onestu eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

01/2015 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 2koa, 2015eko ekaineko ordainsariari dagozkion nominaren aurrerakinak ahalbideratzea Alkizako Udal langileari, ebazten duena.

02/2015 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 14koa, F.I.U. andreak eginiko obra baimena onestea, ebazten duena.

03/2015 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Hornitzaileek Alkizako udalari egiten dizkieten faktura elektronikoak jasotzeko prozedura arautzea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ULAHÍ	526,35
ARGITU ASESORES	140,48
TOLOMENDI	122,40
LYRECO	160,07
IZADI	152,94



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

EBA ERKIZIA	409,18
IMPORT-QUIMIA	153,14
FONTANERIA ANTZIETA	126,58
CORREOS	21,18
REPSOL	85,16
REPSOL	899,14
REPSOL	310,24
REPSOL	77,67
REPSOL	507,81
AUDAX	196,27
AUDAX	509,91
AUDAX	147,81
MOVISTAR	227,52

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **4.773,85** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

**TOLOSALDEKO ATARIAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU ETA 2015 URTERAKO DAGOKION HITZARMENA ONESTU, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Atariak 2015. Urterako eginiko diru-laguntza eskaera, horretarako dagokion hitzarmaren onespena eskatzen dutelarik.

Ikusirik 2014ko urriaren 28an eginiko Udalbatzarrean Tolosaldeko Atariak aurkezturiko hiru urterako hitzarmena onestu zela, proposatzen delarik, erabaki hau bertan behera uztea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Atariak eginiko 2015 urterako diru-laguntza onestu, hau da, 1.095 euro.

BIGARRENA: Goian onarturiko diru-laguntza burutu dadin, 2015 urterako Alkizako Udalak eta Tolosaldeko Komunikazio Taldearen artean lankidetzaz hitzarmena onestu.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko hitzarmena sina dezan.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Atariari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **ALKIZAKO HERRI ESKOLAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Ikusirik Alkizako Herri Eskolak eginiko eskaera non ondorengoia dioen:

“ALKIZAKO ALKATEARI:

*Herriko plazan eta eskolako aterpean JOKU TRADIZIONALAK (Txingak, txapak, hiruko lerroa,...)margotzeko ideia hausnartzen ari gara eta, lehenik Udalaren baimena eskatzea erabaki dugu.*

*Eskolako komunitate osoaren artean egindako ekintza izango litzateke, eta espazio hauek jolaserako beste aukera batzuk eskainiko lukete.*

*Zuen erantzunaren zain geratzen gara.*

**ZUZENDARITZA.”**

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Alkizako Herri Eskolak eginiko eskaera onestu, hau da herriko plazan eta eskolako aterpean joku tradizionalak margotzeko baimena ematea, betiere, herriko plazan margotu behar dituzten joku tradizionalen marrazkiak Udaletxe honetan aurkezten badituzte, azken honek bere on iritzia eman dezan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Alkizako Herri Eskolari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **BESTE BATZUK**

**6.1. M.I.G.D.L. ANDREAK AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN AURKA TERTEKATURIKO DEMANDAREN BERRI EMATEA, HALA BADA.**

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariak, hau da, Koldobika Jauregi zinegotziak bertaratuei jakitera ematen die, M.I.G.D.L. andreak



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Donostiako lan arloko 5. Zenbakiko epaitegian demanda bat arkeztu duela, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatearen aurka, laneko funtsezko baldintzak aldatzeagatik. Aipaturiko mankomunitateko ordezkariak zituak daudelarik adiskidetze ekitaldi batera joateko urtarrilaren 18an, bertan, abenikorik lortzen ez bada, juizioa egun berdinean egingo delarik.

Bertaratuek guziaren berri hartzen dutelarik.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*